9.KOSTUEN EGITURA

Gure negozio-eredua aurrera ateratzeak dakartzan kostuak hiru azpiataletan egituratzen dira:

Kostu finkoak enpresak bere eragiketa-maila edozein dela ere ordaindu behar dituen kostuak dira, hau da, ekoiztu edo ez ekoiztu kopuru bera ordaindu behar du. Koste hauek aurreikusi egingo ditugu:

- Kudeaketa eta administrazio planta bat alokatzearen kostua.
- Biltegiaren alokairuaren kostua.
- Marketineko eta gizarte-harremanetako langilearen hileko kostua.
- Arkitektoaren hileko kostua, bezeroak hala eskatzen badu.
- Administrazioko enplegatuaren hileko kostua.

Kostu aldakorrak salmenta-bolumenak aldatzen direnean aldaketak jasaten dituzten enpresa-gastuak dira. Horrela, kostu aldakorrek gora edo behera egin lezakete konpainia baten egungo ekoizpenaren arabera. Eraikuntzaren tamainaren eta iraupenaren arabera, gure enpresak aldakortasun bat izango luke kostu aldakorrei dagokienez, eta hori guztia materialen arteko diferentziak direla eta (kostu horiek 4. atalean zehaztu dira).

Kostu mistoa kostu finko eta aldakorren atributuak dituen gastua da. Beste era batera esanda, ekoizpen-bolumenarekin aldatzen duen kostua da. Kostu aldakor batek ezin da erabat ezabatu, kostu finko bat bezala. Gure ereduan eskulana litzateke; eskulana taldetan banatzen da. Talde bakoitzak teilatu mota bat du; beraz, talde horretako langile guztien kostua finkoa da. Hala ere, taldeen kostua aldatu egingo da, bakoitza une horretan teilatu ezberdin batean espezializatuta egongo baita, bakoitza bere ezaugarriarekin.